



KIDEGORA SARTZEKO AUKERATZE-PROZEDURA

2011-2012
IKASTURTEA

- Maisu-maistrak
- Bigarren Hezkuntzako irakasleak
- HEOeko irakasleak
- Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleak
- Lanbide Heziketako irakasleak

IRAKASKUNTZA
PRAKTIKAK
BALORATZEKO
TXOSTENA

TUTOREAREN TXOSTENA

PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIOAREN IZEN-DEITURAK

PRAKTIKETAKO ALDIA, HILABETEETAN

IKASTETXEA

ESPEZIALITATEA

HERRIA

LURRALDEA

ADIERAZLEAK ETA MAILAK

(Markatu dagokiona, beheko laukietan.)

Ohar pertsonalak egin daitezke horretarako dagoen tokian)

1.-IRAKASLE-TALDEKO KIDEA DEN ALDETIK TALDE-GELAKO TUTOREAREKIN DUEN LANKIDETZA AKTIBOA, IKASLEEN HEZKUNTZA-PROZESUAN (HEOeko –HIZKUNTZ ESKOLA OFIZIALAK– KIDEGOKO IRAKASLEAK IZAN EZIK)

 ONDO NAHIKO GUTXI

1.1.- Bere kabuz etengabeko lankidetzan jarduten du esku hartzen duen talde-gelako tutorearekin eta irakasle-taldeko gainontzeko kideekin, gela horretan diseinatu eta egiten diren hezkuntza-jarduerak arrakastatsuak izan daitezen proposamenak eginez.

1.2.- Berariaz eskatzen diotenean jarduten du talde-gelako irakasleekin eta tutorearekin lankidetzan, baina bere kabuz noizbehinka bakarrik egiten du.

1.3.- Laguntza eskatu arren oso gutxitan ematen du. Ia beti jarrera pasiboa du talde-gelako gainontzeko kideei eta tutoreari eman beharreko laguntzari begira.

OHARRAK

**2.- IRAKASLEEN BILERA ETA LAN-TALDEETAN DUEN PARTE-HARTZEA ETA LANKIDETZA AKTIBOA** ONDO NAHIKO GUTXI

2.1.- Era aktiboan parte hartzen du ikasleen hezkuntza-prozesuari lotutako gaiak aztertzeko bileretan eta sortzen diren lan-taldeetan, gai horiei erantzuna emateko irtenbideak edo erantzunak proposatuz. Prestutasun osoa du talde-gelako, zikloko, departamentuko..gainontzeko kideekin era aktiboan lankidetzan jarduteko.

2.2.- Parte hartzen du talde-gelako, zikloko, departamentuko...lan-taldeen bileretan proposatzen den orotan, baina gehienetan ez du bere kabuz egiten.

2.3.- Jarrera pasiboa edo negatiboa erakusten du talde-gelako, zikloko edo departamentuko lan-taldeen bileretara joaten denean eta, batzuetan, bilera horietan hartutako akordioen aurka agertzen da.

OHARRAK

3.- DEPARTAMENTUAREN EDO ZIKLOAREN PROPOSAMENEZ EGITEN DIREN HEZKUNTZA-JARDUERETAN PARTE-HARTZEA ONDO NAHIKO GUTXI

3.1.- Era aktiboan hartzen du parte departamentuaren edo zikloaren proposamenez antolatutako hezkuntza-jardueretan, hobetzeko proposamenak aurkezten ditu eta inplikatzeko da jarduera horiek gauzatzeko prozesuan.

3.2.- Parte hartzen du departamentu edo zikloetan erabakitako hezkuntza-jarduera guztietan, baina gutxitan ematen du laguntza jarduera horiek gauzatzeko prozesuan.

3.3.- Beti oztopoak jartzen ditu departamentuak edo zikloak proposatutako hezkuntza-jarduerak gauzatzeko orduan. Batzuetan, kritikoa agertzen da egiteko erarekin eta, horregatik, ez du haietan parte hartzen.

OHARRAK

4.- TALDE-GELAN AURRERA ERAMAN BEHARREKO HEZKUNTZA-JARDUERAK INDARREKO CURRÍCULUMAREN ETA IKASTETXEAREN HEZKUNTZA-PROIEKTUAREN ARABERA PLANIFIKATU ETA PROGRAMATZEA ONDO NAHIKO GUTXI

4.1.- Ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren testuinguruan eta ematen diren arlo edo irakasgai desberdinen indarreko curriculumaren arabera planifikatu eta programatzen ditu talde-gelan aurrera eraman beharreko hezkuntza-jarduerak. Haren programazio didaktikoa ikastetxearen curriculum-proiektuan oinarritzen da eta ziklo eta departamentuetan hartutako erabakiak sartzen ditu.

4.2.- Talde-gelan aurrera eraman beharreko hezkuntza-jardueren programazioa egiten duen arren, ez du programazio hori testuinguru batean, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren arabera, behar bezala sartzen. Hori egin beharrean, badu testuliburuaren argitaletxeetan emandako programazioen estandarizazioaren arabera jokatzeko joera.

4.3.- Ez ditu planifikatzen, ez eta programatzen ere, talde-gelan garatu behar dituen jarduerak. Indarrean dagoen curriculumak ez du ezagutzen eta, era berean, ez ditu ezagutzen irakas-jarduera antolatzeke ikastetxeak dituen baliabideak.

OHARRAK



5.- TALDE-GELAKO PROGRAMAZIOA DEPARTAMENTU EDO ZIKLOAN ETAPAKO CURRÍCULUM-PROIEKTUAREN ARABERA EZARRITAKO IRIZPIDEETARA EGOKITZEA, ONDORENGO PUNTUEI BEGIRA:

- **Espezialitatearen programa.**
- **Estrategia metodologiko egokiak aplikatzea.**
- **Hezkuntza-etapara edo espezialitatera egokitutako ebaluazio-prozeduren aplikazioa.**
- **Ikasleen aniztasunari arreta ematea, hezkuntza-premia bereziak dituztenei batez ere**

ONDO

NAHIKO

GAIZKI

5.1.- Talde-gelan garatzen duen programazioa etaparen ikastetxearen curriculum-proiektuaren testuinguruan sartzen da eta, indarreko curriculumaren arabera, egiteko prozesuan departamentuan edo zikloan zehaztutako irizpideak aplikatzen ditu. Eduki eta jarduerak aukeratzeko orduan ikasleek ikasteko erritmo desberdinak kontuan hartzen dituen programazioa da eta hezkuntza-premia berezietako ikasleak beren ezaugarrien arabera integratzeko trataera bat gehitzen du. Halaber, ikasleen ikaskuntzen ebaluaziorako prozedurak hezkuntza-mailara egokitzen dira. Irakasleak aipatutako estrategia metodologikoak egokiak dira ikasgaietarako eta aipaturiko ikasleriaren testuingurura egokiturik daude.

5.2.- Testuliburua da talde-gelan erabiltzen den programazioaren funtsezko erreferentzia eta, horregatik, zenbait alderditan estandarra dela esan daiteke. Dena den, irakasleak oinarrizko egokitzapenak egiten ditu, taldean dituen ikasle mota desberdinak kontuan hartuta. Programazioa garatzeko erabiltzen duen metodologia ikasle horien banakako ezaugarrietara egokitzen da. Ebaluazio-prozedurak hezkuntza-etapa edo zikloari dagozkionak dira.

5.3.- Ez du inolako programaziorik garatzen eta denboraren aldetik banatzen ditu edukiak, ez besterik. Erabiltzen duen metodologia ez da ikasle taldera egokitzen, ezta eman behar duen metodologiara ere. Erabiltzen dituen sistemak eta ebaluazio-tresnek ez dute ikasleek ikasten dutena ezagutzeko erraztasunik ematen. Ikasleekin egiteko proposatzen dituen jarduerak ez dira haien ezaugarrietara egokitzen.

OHARRAK


6.- PRESTAKUNTZA-EBALUAZIOAREN ETA EBALUAZIO SUMATIBOAREN DISEINUA ETA APLIKAZIOA PROGRAMATUTAKO IRAKATSI ETA IKASTEKO PROZESUETAN:

- Talde-gelako ikasleek lortutako emaitzen azterketa eta ikasle bakoitzak egin duen ikaskuntzaren maila.
- Ikasleen egiten duten aurrerapenaren jarraipena eta horren berri talde-gelako tutoreari, ikasleei eta beren familiei ematea.
- Hartutako hobekuntza-proposamenak: metodologia aldatzea, jarduerak egokitzea, materialak eta baliabide didaktikoak aukeratzea, ebaluazio-irizpideak egokitzea, kalifikazioa...

○ ONDO

○ NAHIKO

○ GAIZKI

6.1.- Ikasleek zer moduz ikasten duten ebaluatzeko erabiltzen den planteamendua ikasleen ezaugarrietara egokitzen da eta indarreko araudiaren eta ikastetxearen araudi bereziaren arabera egiten da. Horretaz gain, irakatsi eta ikasteko prozesuan hobekuntzak sartzeko aukera ematen du, talde-gelan lortutako emaitzen arabera. Ikasleen ikaskuntza-prozesuaren banakako jarraipena egiten da. Ebaluazio-prozedura aplikatzeko teknikak irakasgaira eta ikasleen ezaugarrietara egokitzen dira. Emaitza positiboak lortu ez direnean, laguntza eman eta berreskuratzeko prozedurak hartzen dira kontuan.

6.2.- Ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioa indarreko legeriaren arabera egiten den arren, ez dago hain orokortuta eskuratutako ikaskuntza mailaren banakako jarraipena. Talde-gelako ikasleen tipologiara egokitutako teknikak eta tresnak erabiltzen dira. Ez da berreskuratzeko prozeduren aplikazioa kasu guztietan kontuan hartzen.

6.3.- Ikasleek zer moduz ikasi duten ebaluatzeko, ez dira ikasleen ezaugarrietara eta irakasgaira egokitutako teknikak eta tresnak erabiltzen. Ez da aipatutako ebaluazioa egiteko gutxienezko irizpide batzuk diseinatu. Ia ez da egiten ikasleen ikaskuntzaren banakako jarraipena. Ikasleek ikaskuntza mailak lortzen ez badituzte, ez dira inoiz berreskuratzeko prozedurak kontuan hartzen.

OHARRAK

**7.- TALDE-GELAKO IKASLEEN ANIZTASUNAREN TRATAERA** ONDO

7.1.- Talde-gelan planteatzen dituen jarduerak betiere talde-gelako ikasleen aniztasunera egokitzen dira. Haren talde-gelaren aniztasunak planteatzen dizkion arazoei buruz beste espezialista batzuei iritzia eskatu eta haiekin alderatu ondoren, erabakiak hartzen ditu, jarduerak planifikatzen ditu eta planifikatutakoa aplikatzen du. Era aktiboan ematen du laguntza NCEak egiteko prozesuan, egoerek horrela eskatuz gero.

Ikasleak integratzearen aldeko dinamika eta jarduerak ezarrita ditu gelan. Etengabe ditu eskolako barne espezialistekin (aholkularia, Pedagogia Terapeutikoko irakasleak...) eta Berritzeguneko kanpoko espezialistekin, ikasle mota desberdinak integratzeko orientabideak ematen dituztenekin, harremanak.

OHARRAK NAHIKO

7.2.- Talde-gelan planteatzen dituen jarduerak talde-gela horretako ikasleen aniztasunera egokituta daude gehienetan. Ia beti alderatu eta kontuan hartzen ditu beste lankide espezialista batzuen iritzia, gelako ikasleen aniztasuna tratatzeko orduan. Parte hartzen du NCEak egiteko prozesuan, eskatzen diotenean.

 GAIZKI

7.3.- Talde-gelan egiteko planteatzen dituen jarduerak ia inoiz ez dute ikasleen aniztasuna kontuan hartzen. Sarritan ez dira beste espezialista batzuen orientabideak kontuan hartzen ikasleak tratatzeko orduan. Laguntza eskasa ematen du NCEak egiteko prozesuan.

8.- TALDE-GELAN PLANTEATZEN DIREN GATAZKAK KONPONTZEKO GAITASUNAK ONDO

8.1.- Ikasleen adinera egokitutako talde-dinamikak erabiltzen ditu eta interakzio onak lortzen ditu talde-gelako ikasleekin eta ikasleen artean. Halaber, dinamika positiboak sortzen ditu irakasle-taldearen eta talde-gelako ikasleen artean. Eraginkortasunez jarduten du talde-gelako gainontzeko irakasleekin lankidetzan ikasle horiekin esku hartzeko irizpide komunak diseinatzeko prozesuan.

 NAHIKO

8.2.- Gelan sortzen diren gatazkak konpontzeko, oro har, prozedura mota desberdinak erabiltzen ditu, eta, ez soilik, diziplina neurriak aplikatu. Talde-gelako irakasleen aholkuak kontuan hartzen ditu eta irakasle horiek hitzartutako jarduerari irizpideak aplikatzen ditu.

 GAIZKI

8.3.- Sarritan beste hirugarren bat behar du talde-gelako ikasleen artean edo ikasleekin sortzen diren gatazkak konpontzeko. Sarritan diziplina-neurriak besterik ez du erabiltzen, ikasleen adinera eta ezaugarrietara eta gertaeren larritasunera egokitutako beste neurri mota batzuk kontuan hartu gabe. Ez du talde-gelako irakasleek eskaintzen dioten laguntza kontuan hartzen, gatazka egoeretan izan ezik.

OHARRAK

**9.- TALDEKO TUTORE-LANA ETA BERARI EGOTZITAKO FUNTZIOAK EDO IKASTETXEAK JARRITAKO BESTE EDOZEIN KARGU EDO ERANTZUKIZUN BEHAR BEZALA BETETZEA** ONDO NAHIKO GAIZKI

9.1.- Taldeko tutoretzaren edukia garatzen du, ikastetxeak ezarritako tutore-egintzako planaren barruan, ideiak ekarriz eta planean ezarritakoa hobetuz. Koordinatu egiten da ikasle-talde berberarekin lan egiten duten gainerako irakasleekin, baita ikastetxeko orientatzailearekin ere hezkuntzako esku-hartzea hobetze aldera. Agindutako edozein kargu edo arduratan diharduenean, ezarritako eginkizunak bete ez ezik, jarrera prestua du eta ideiak nahiz iradokizunak proposatzen ditu.

9.2.- Taldeko tutoretzaren edukia garatzen du, ikastetxeko tutore-egintzako planean ezarrita dagoen bezalaxe. Taldearen eta ikasle bakoitzaren alderdirik adierazgarrien berri ematen die bere tutoretzako ikasleekin esku hartzen duten gainerako irakasleei. Agindutako edozein kargu edo arduratan diharduenean, bete egiten ditu ezarritako eginkizunak

9.3.- Ez ditu burutzen ikastetxean programatutako ekintzak, tutoretza-egintzako planaren barruan, taldeko tutoretzarako. Ez dihardu karguari edo agindutako ardurei atxikiak dauden eginkizunetan.

OHARRAK

--

**BALORAZIOAREN OINARRI DIREN ELEMENTU ETA DOKUMENTAZIOA**

IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA	<input type="checkbox"/>
IKASTETXEAREN KURRIKULUM PROIEKTUA	<input type="checkbox"/>
IKASTETXEAREN URTEKO PLANA	<input type="checkbox"/>
ARLO, MAILA, ESPEZIALITA- TEKO PROGRAMAZIOAK	<input type="checkbox"/>
AJA	<input type="checkbox"/>
EED	<input type="checkbox"/>
TUTORETZA PLANA	<input type="checkbox"/>
KLAUSTROEN AKTAK	<input type="checkbox"/>
HUTSEGITEEN PARTEA ETA KONTROLA	<input type="checkbox"/>
KOORDINAZIO, IRAKASLE-TALDEA, MAILA, MINTEGIA EDOTA BESTELAKO BATZARRAK	<input type="checkbox"/>
EBALUAZIO SAIOEN AKTAK	<input type="checkbox"/>
IRAKASLEAREN EGUNEROKO JARDUEREN BEHAKETA	<input type="checkbox"/>
KLAUSTRO NAHIZ ORGANO KOLEGIATUETAN PARTE HARTZEA	<input type="checkbox"/>
IKASTETXEKO NAHIZ KANPOKO PRESTAKUNTZA JARDUERETAN PARTE-HARTZEA	<input type="checkbox"/>
IKASLEEN TUTORETZA EDOTA ORIENTABIDETZARAKO BILERETAN PARTE-HARTZEA	<input type="checkbox"/>
IKASLEEKIKO TUTORETXA SAIOAK	<input type="checkbox"/>
FAMILIEKIKO BILERAK	<input type="checkbox"/>
BESTE BATZUK (Zehaztu)	<input type="checkbox"/>

-(e)n,

-(e)ko

-ren

-(e)an
Tutorea
Izpta.:

 (Sinadura eta zigilua)